

# Bakearen katezismoa

JOAN MARI TORREALDAI



**(ABERTZALE-ON** zoritxarterako) Euskal Herrian gehien saltzen den *Correo Español*ek bere editorealean idatzi-berria du J.C.

Allik, Nafarroako Lehendakaria, ETArek deklarazioi buruz, esandakoak zentzu arruntaren (sen onaren) aurka doazela.

Ba, neri kontrakoak gertatzen zait: arazo horren inguruan, agintarien aldetik, egin diren deklarazio (ustez) guztietatik, Alli-renak iruditu zaizkit sen on arruntze egindako (agian) bakarrak. Ulertzekoa da, noski, UPNko sektore batzuk hasarretzea. Zer besterik espero dezakegu Aizpun batengandik, del Burgo batengandik! Alderdi barruko arazoak dira horiek, eta hor konpon.

Nola ulertu, ordea, beste batzuen jarrera? Alderdiatiko buruek eta zenbait komunikabidek eta berauetako iritzi-emaileek hartu duten jarrera, adibidez. Eskandalu-jarrera hori demokraziaren izenean hartu izana gertatzen zait harrigarriena. Eskandalu farisaikoa.

Alli-k bekatu larria egin du, nonbait: alderdi 'demokratiko'ek erabakirikiko ortodoxia eta uniformitatea hautsi egin ditu, bata eta bestea. Alliri ezin zaio inolaz ere barkatu Euskal Herriaren normalizazioa eta baketzea lortzeko alderdi politiko 'demokratiko'ek idatzirikiko katezismoa ez errezitatzea. Alli-k, eta sen oneko demokrata orok, egin behar duena zera da: katezismoa buruz ikasi, eta hitzez hitz errepikatu. Arnasaldi batean.

Txikitari ikasi genuen guk zer egin behar zen ortodoxia eta gizona salbatzeko. Kristau-dotrikan ikasi genuen hori. Gaurko katezismo politikoan zera erakusten zaigu: demokrazia eta herriarria nola salbatu. Klero politikoa da orain nagusi.

# Huhua

JEAN LOUIS DAVANT



**BEHIN, EHAS** alderdiaren hastapenetan, haren ezagutarazteko bilkura ideki bat antolatua genuen Maulen. Beste batzuren arteki agertu zitzaigun alderdi baten tokiko buruzagia eta errian zerran: Maule ez da euskalduna, ez dago Euskal Herrian.

Orain askoz ere gorago erraiten da: Araban arrotzak dira euskara eta euskaldunak. Beraz ez omen dira gureak Araba eta Zuberoa. Hegalak moztu nahi dizkigute, baizik eta lutzeeziak ditugula. Huntuak bilgarroari: buru handia!

Hor gogoratzen zait behin Altxurrikutar-batek bortura bazoan bati errana. Bortuzaleak ez zuen agurte eta Altxurrikutarrek edderki: «Errazi adiskidia, oihan horren goiti juitian *Huhua* egile bat entzuten balin badüzü, etzifila lotsa, hUra hüntza dükezü!».

Ez dakit beste euskal-herrietan nola ikusia den, baina zuberotarrentzat (greko zaharrentzat ez bezala), tziro zozoa da huntuza (Atxagak aipaturiko Goliat bezala), aldiz oso ernea bilgarroa (Dabid bezala).

# ●DEIA

## Presoen manipulazioaren zentzu bikoitza

Polizia ekintza horien ondorio garrantzitsuena oraindik ere, ia beti, militante eta militante ohie aterpea emateko —ia gehienetan zerbait gehiago da— tentaldia izan dezaketen frantziarrei horretarako asmoa kentzea da. Atxilotuak eta presoak, eta baita seni-deak ere batzuetan, manipuluak izaten ari dira instantzia bikoitzetik, errepresibotik eta errepresiboaren aurkakotik, alegia. Presoei, bitartean, ez zaie geratzen beren buruz baliatu eta zeldako isolamendura jotzea baino itxitura apurtzeko eta zulotik irteteko. Presoak, ganbio moneta baino gehiago direnak, jadanik balioa hartzen ari dira sinbolo gisa, askatzailea zein zapuzatzailea izan daitekeen sinboloa.

SANTHI LARRAÑAGA

# ●EL PAIS

## Hankaz gora

Estatu Batuak urrunago joan dira beren proposamenetan: negu latzari

# H E M E R O T E K A



ALFREDO / DIARIO 16

# ●Enbata Espetxezainen aurrean

Bostehun eta hogeitabost euskal preso politikoa. Kopuru hori berez nahiko adierazle ona da gurea bezalako herri txiki batentzako, gu zati bat gareneko Europaren kezka demokratikoaren mailari buruz itauntzeko. Galdetu beharra dago baita ere, bi Estatu horiek Euskalerrian gauzatutako lurralde zatiketaz, ondo konpontzen bait dira erresistentzia oro desuztatzen. Amaitezko, abertzaleen arteko errealitate tirabiratsuz galdetu beharra dago.(...)

EDITORIALA

ETAk berriro ere Espainiarri suetenarako eskaintza egin dio, negoziaketa bideratzeko, eta hona non bere zentsoreen korako eta bideak, hamaikagarren aldiz, ahultasunaren itxura duen. Ezezkoa eman diote konponbide politikoa lortzeko eskaintak lagunari. Beren buruak pazifistatza badituzte, oraindik abertzaleak al dira? Oraindik, euskal eta espainiarren arteko elkarrikizketen aurrean al gaude, ETAk uste bezala, Madrilke geure herrian hainbeste aliatu bizkor dituenen? Bakea ez al da etorriko nazio independentziari buruz euskaldunen artean egindako negoziazioaren ondoren? Geure 525 preso politikoen sufrimendua debataren erdian dago.

EDITORIALA

# ZUZENDARIARI

## Geureari firme eutsi, nahiz hanka bana hautsi...

Egin-en idatzitako artikulua onduz, Arrasateko M.A-k galderra batzuk botatzen dizkit, ea erantzuterik badaudakadan.

Berarekin nago diocnean «irteera (egoerarena) ETArek eskuetan baino gehiago dagoela uste dut gaurko agintarietan». Nik ere horixe nion nire artikuluan. Autodeterminazioaren eskuratzearan jarritz irtenbide hori. Baina horrek ez du kentzen, ETAk ez duela zeri-rikusirik autodeterminazio hori lortzeko erabiltzen duen estrategiarekin. Ausuntoa da nola behartzen dieguten agintari-erri eskubide hoiek onartzea.

Hala eta guzti, eta nola oso modan dagoen ETARI leporatzea zenbait zailtasun eta oztopenen sortzaile edo egile izatea, esan nahi dut, ene iduriko eta autodeterminazioa lortzeko dugun oztoporik nagusia «Gemikako Estatuaren» bideetik datorrela. Ere gehiago, Estatuak agian batzuri onurak lekarikie, baina autodeterminazioari dagokionez oztopena da, besterik ez. Bide horiatik ez goaz inora.

Gauza bat da burruka metodo konkretu batzuen aurrean desadostasunak agertzea, nik hori egiten nuen ene artikuluan, eta bestea burruka ukatzea, gure askatasunerako erabili behar diren burruka metodoak ez erabiltzea. Hori garaian garaiko, eta tokian tokiko ikusi behar da. Ene ustez, giroak sortzen digun etsipenari buelta emateko epe luze-rako estrategiaren ardatzak finkatzen ikasi behar dugu (*Larrun*-en horretaz zer edo zer esaten dut). Trantsizioetik zetorkigun epea amaitez dago, amaitu ez bada, eta epe berrian sartuta gaude, honek imaginazioa eskatzen digu.

Azkenik, noski badagoela etika iraultzailek, gure herriaren askapenaroko borrokan, zanpau guztien borrokan liberazio guztiei bide emanez sortzen den etika askatzailea. Hortik doaz ene kezakak. Bitartez, Xepelarrak zioenez «Burruki firme eutsi»...

J.I. 'BIKILA' Donostia

## Xarritton-i erantzuna

Abenduaren 7ko EGUNKARIAN, Piarres Xarritton-en lumari esker irakurri ditut bi gauza, bi hitz idatzitako gogoia eman dautenak.

Lehenbizi, ez zait iduritzen «gure Herri saindua» hau hainbestekoa denik: euskaldunentzat sakratua bai, bainan saindua...

Bigarren, Piarresrek aipatu du «ezker abertzale mugimendu berrienak» ateratzen

duen aldezkarria, erranez izena euskaraz duela eta funtsa erdaraz; eta egia da... Gure «abertzale sutsuenak» euskaraz idazteko ahalik ez: bekatu mortala... ezin barkatuzkoa... Eta futxo, artha hartzen duenak jende hori pixka bat ezagutzeko, badaki euskaldunberri kopuru handiena bere baitan duela; euskaraz idaztea beste maila bat da, ez? Nor ausartuko da erraitera euskara ez dela baitzepadakoa euskaldun izaitzeko? Nor ausartuko da erraitera abertzale izaitzeko euskaldun behar dela izan? Nor ausartuko da erraitera euskaldun guztiak abertzaleak direla? Ez ahal dute askok eta askok bizia eman euskara bizi dadin Euskadi euskaldun batean, berek euskara jakin gabe?

Ni beldur, batzuek euskaraz baliatzen direla «ezker abertzaleari» dioten gorrotoa gordetzeko... Behar orduan, euskarari dioten amodioa baztertuz, gure etsai eraldunekin batzeko... Bakearen eta 'realismo' politikoa izenean, nola ez... Ez da adibide eskasik mugaz bi aldeetan!!! Egun hauetan baditugu frogak Iparraldean. Noiz utziko gaituzte bakean, ezkerreko abertzaleak? Ez ahal dute beste etsairik gu baizik? Izan giten euskaldun edo ez!

X. E

Hazparne (Lapurdi)

# P E R T S O N A I A



## Mariano Izeta

Mariano Izeta izena du lagun maite honetzako omenaldi bat egiten degu Baztan ibaia biltzeko aitan moduan lana egin du bertsolariak biltzeko nafarrak gaur bertsotan gabiltz zuk indartu zendulako holko gizonak Baztango txokun bizi behar luke betiko.

JOSETXO IANTZI

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria: JOAN MARI TORREALDAI

Zuzendariordeak: NEREA AZURMEIDI LUZIAN EPFXZAHARRETA INAKI URUA

Kontseilari Ordezkarria: JOXE MIEL ZUMALABE

Publizitateak: KORNELIO ROTETA

Gerenteak: INMA GOMILA

# Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E Lege Gordailua: SS 800/90

### HELBIDEAK

Egoitza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Erredakzio eta Tailerra: ANTTA S.A. Industrialdea 01-02 Pabiloak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Arabara: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. (Irritzidorea) / 31011 Iruñea / ☎: 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuna. / 48002 Bilbo / ☎: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurdi / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2. Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11